

I ERANSKINA

JARDUERA BARIK DAUDEN LOKAL HUTSEN ERABILERA BULTZATZEKO DIRULAGUNTZA EKINTZAILAZA SUSTATUZ. LOKALBIDE PROGRAMA

1.- XEDEA

Deialdiaren oinarri arautzaile hauen xedea zera da: Bermeoko alde zaharrea kokatuta dauden lokal hutsei ikusgarritasuna ematea eta ekintzailatza sustatzea, garapen ekonomia indartuz lokal hutsetan. Diru laguntza arrunta da, bere helburua ekintzailatza-jardueraren hasieran gutxieneko diru-sarrerak bermatzea baita.

2.- DIRULAGUNTZA EMATEKO ERA

Dirulaguntza hauek emateko era eskabideak jasotzen diren hurrenkeraren arabera izango da eta aurrekontua agortu arte. Dirulaguntzak onartzeko oinarri hauetan agertzen diren baldintzak betetzen diren egiaztatuko da. Emateko diren dirulaguntzak esleitzeko emakidan publikotasun-, berdintasun-, lehia- eta objektotasun-printzipioak hartuko dira kontuan.

3.- AURREKONTUA, ZENBATEKOA ETA KOPURUA

Deialdi honetarako aurreikusitako zenbatekoa 36.000,00 €-koa da eta urtebeterako izango da, udalaren 2023ko aurrekontuaren kontura. 2023-01000-43300-471.00.02 partidatik hain zuzen ere. Onuradunek jaso ahal izango duten dirulaguntzaren zenbateko handiena 3.600 eurokoa izango da (gehienez 300€ hileko, urtebetez).

4. -DIRUZ LAGUNDU DAITEKEENA

Lokalbide programako lokal hutsaren alokairuaren kostua. (gehienez 300€ hileko, urtebetez).

Ez dira diruz lagunduko BEZa, zergak, tasak, lokalaren fidantza ezta higiezin kudeaketa gastuak ere.

5.- ONURADUNAK

Laguntzaren onuradun izan ahal da: enpresa (zeinahi dela ere izaera juridikoa, eta banakako enpresaburuak eta profesionalak barne), profesionalak, ondasun – erkidegoak eta sozietate zibilak. Ekintzaileek gainera honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Lokalbide programan parte hartzen duten lokaletan bere jarduera ekonomikoa jartzea.
- b) Bermeoko establezimendu bat lekuz aldatzea ez dakarren establezimendu berri bat irekitzea.
- c) Sektore edo aktibitate hauetakoren batekin lotura duten jarduerak ezartzea:
 - i. Txikizkako merkataritza
 - ii. Pertsonentzako zerbitzu enpresak
 - iii. Ostalaritza
 - iv. Artisautzako tailer txikia edo antzeko
 - v. Bestelakoak. Interesekoa izan eta merkataritza aldetik inguru hori suspertzen laguntzeko koherentea izango den beste edozein, betiere lokal komertzial hutsean ezartzen bada.
 - vi. Arrantza eta elikadura
 - vii. Turismoa
 - viii. Adimen artifiziala
 - ix. Soluzio digitalak
- d) Autonomotan eta EJZn alta emanda egotea.

- e) Jarduera ekonomikoa garatuko den lokalaren alokairu kontratuaren titularra izatea.
- f) Onuraduna ezin izango da lokalaren jabea izan. Ahaidetasunik ere ez du izango.
- g) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, eta Bermeoko Udalarekin zorrik ez izatea.
- h) Dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez izatea, ezta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik gertatutakoak barne.
- i) Dirulaguntzen onuradun izateari dagokionez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeretan ez egotea.
- j) Ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek, aurreko baldintzaz gain, zehaztu egin beharko dute taldeko kide bakoitzak bere gain hartutako gauzatze-konpromisoak eta bakoitzari aplikatu beharreko diru laguntzaren zenbatekoa.

6.- ESKABIDEAK: IZAPIDETZEA, AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA, EPEA ETA MODUA.

Eskaera egin ahal izateko, aurreko 5. kapituluaren eskatutakoaz gain, beharrezkoa izango da alokairukontratu sinatuta izatea eta ekonomia-jarduera gauzatu den lokalean EJZn eta Gizarte Segurantzaren alta emanda egotea.

Ekintzaile bakoitzak lokal bakoitzeko eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du, betiere oinarri hauetaneskatutako baldintzak betetzen baditu.

Laguntzak dirulaguntzen lege orokorraren 22.1 artikulua araberako emango dira.

Eskaera izapidetzea

Eskaerak honela aurkeztu beharko dira:

- Aurkezpena egoitza elektronikoa egingo da www.bermeo.eus webgunean.

Interesdunek eskabidea aurkezteak, oinarri hauek onartzen dituztela esan nahiko du.

Oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta lege hori garatzen duen Erregelamenduko baldintzak bete beharko dituzte onuradunek, eta, bereziki, administrazio publikoekiko ordainketak egunean izatearena.

Eskaerak udalaren egoitza elektronikoa sartzen diren hurrenkeran ebatziko dira; betiere oinarrietan eskatutako dokumentazio guztia erantsen bada. Bestela, sarrera data moduan, akatsa zuzentzeko epean eskatutako dokumentazioa aurkeztu deneko data hartuko da.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a) Eskaera orria beteta proiektuaren deskribapenarekin eta zinpeko aitoprenarekin
- b) Eskatzailearen E(H)NA/NAN/AIZ edo IFK
- c) Alokairu- kontratua
- d) Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren alta ziurtagiria
- e) Autonomoetan edo beste mutualitate batean alta eman izanaren ziurtagiria
- f) Eskatzailea ondasun-erkidegoa edo sozietate zibila bada, aurrekoaz gain honako dokumentazioa aurkeztu behar du:

- ✓ Ordezkarri edo ahalduen bakarria izendatzea, bai eta taldeko kide bakoitzak bere gain hartutako gauzatze-konpromisoak eta bakoitzaren partaidetza-ehunekoa zehazten dituen ziurtagiria.
- ✓ Eraketa egiaztatzen duen dokumentua.
- ✓ Zinpeko aitortpena dirulaguntza ematen den egunetik 4 urte ostean elkartea ez desegitea.

39/2015 Prozedura Legearen arabera udalak dokumentu horiek alde zuzenetik baditu ez da izango beharrezkoa aurkeztea, beti ere horiek kontsultatzeko kontrako adierazpen espresua aurkezten ez badu interesdunak (hau da, idatziz kontrakorik esaten ez badu, horiek udalak berak gehituko ditu espedientearen eta ez dauka zertan berriz aurkeztu. Idatziz kontrakoa esaten badu, aurkeztu egin beharko du berriz)

Dirulaguntzak emateko prozedura

Behargintzako teknikariari dagokio eskabideen balorazioa, analisia eta errakuntzen tramitazioa egitea baldin eta badaude, txosten tekniko batekin.

Proposamen txostena egin ondoren, Tokiko Gobernu Batzarra izango da ebazteko organo eskuduna.

Prozeduraren ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Prozesuan zehar errekerimenduak Bermeoko Udaleko egoitza elektronikotik egingo dira.

Espedientearen izapidetze, ebazpen eta jakinarazpen epea gehienez 6 hilabetekoa izango da.

Ordezkaritza

Eskatzaileak beste pertsona bat izendatu ahal izango du eskaera bere izenean aurkezteko. Eskatzaileak eskabide-orreran horretarako gaitutako atalean zehaztuko du nork ordezkatzeko duen.

Pertsona juridikoa bada eskatzailea, nahitaez ordezkaritza hori ahalbidetzen duen notario- ahalordea aurkeztu beharko du.

Epea

Aurkezteko epea oinarri hauek argitaratzen diren egunetik 2023ko azaroaren 15era arte.

Akatsak zuzentzea

Dirulaguntzetarako eskabideek ez badituzte oinarri hauetan xedatutako baldintzak betetzen, edo bertan eskaturiko agiririk erantsiko ez balira, 10 eguneko epea emango zaie interesdunei akats eta okerrak zuzendu edo falta diren beharrezko agiriak aurkez ditzaten. Horrela egin ezean eskaria bertan behera utziko dela eta besterik gabe artxibatuko dela ohartaraziko zaie.

7.- DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

Bermeoko Udalak edozein momentutan egoera egiaztatze behar duen dokumentazioa eskatu ahal izango du.

Izapidetzea

Justifikazioak honela aurkeztu beharko dira:

- Administrazioarekin harreman elektronikoak izateko lege- betebeharra dagoenez, aurkezpenaegoitza elektronikoan egingo da www.bermeo.eus webgunean.

Epeak eta dokumentazioa:

Onuradunek justifikazioa aurkeztu beharko dute hiru hilero honako data hauetan:

- Martxoaren 1etik 10era
- Ekainaren 1etik 10era
- Irailaren 1etik 10era
- Abenduaren 1etik 10era

Data hauek 2024an mantenduko dira, eskaera egiten denetik hamabigarren alokairu-ordainketa egin arte.

Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Justifikazio orria eta zinpeko aitortena non diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru sarrera edo dirulaguntza batzuen zerrenda zehatza jasotzen den, zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta gain-finantziatorik ez dela egon adierazita.
- Alokairuaren gastuaren zenbatekoa eta hilabeteak zehazten dituen fakturak eta ordainketa hauek ziurtatzen dituzten egiaztagiriak.
- Hirugarren interesdunen alta ziurtagiria (lehenengo justifikazioan baino ez).

Tarte hauetatik kanpo justifikatzen dena edo justifikatzen ez dena, hurrengo tartean aurkeztu beharkoda eta ez da hurrengo hiruhilabeteko justifikazioa arte ordainduko.

Bigarren urteko justifikazioan, hau da 13. hilabetean, 18. hilabetean eta 24. hilabetean honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- 036 eguneratuta
- Autonomoetan edo beste mutualitate batean alta eguneratua.
- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren alden eta baje ziurtagiria
- Gizarte Segurantzaren ordaindutako oinarrien eta kuoten ziurtagiria.
- Ogasunean ordainketak egunean izatearen ziurtagiria
- Gizarte Segurantzaren ordainketak egunean izatearen ziurtagiria
- Alokairuaren kontratua indarrean dagoenaren ziurtagiria

Bigarren urteko justifikazioan 10 eguneko epea emango zaie interesdunei akats eta okerrak zuzendu edo falta diren beharrezko agiriak aurkez ditzaten.

Dirulaguntzaren edozein unetan ekintzaileak baja hartzen badu, hau da, enpresa ixten badu, enpresa kokatuta dagoen alokairu-kontratua bertan behera uzten badu edo autonomoetan baje ematen bada, Behargintzan jakinarazi beharko du eta egoitza elektronikotik baja hori egiaztatzen duen dokumentazioa bidali beharko du hilabeteko epean. Ondorioz, dirulaguntza itzultzeko espedientea hasiko da.

8.- ORDAINKETA

Ordainketa hiru hilero egingo da. Justifikazioa egiten denetik bi hilabeteko epea egongo da ordainketaegiteko.

Emandako dirulaguntzaren ordainketa bankuko transferentziaz egingo da, onuradunak adierazitako kontu korrontean.

9.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunen betebeharrak honako hauek izango dira:

- a) Lokalbide programan 2 urteko iraupen konpromisoa.
- b) Negozioa martxan jartzeko Lokalbideko dirulaguntza jaso duela adierazten duen binilo txikia bi urtez mantentzea.
- c) Lokala egoera egokian mantentzea.
- d) Lokalean ipiniko diren mota guztietako errotuluak (errotulu nagusia barne), zein gainerako elementu guztiak (prezioen zerrendak, kartelak, eskaintzen oharra, arbeletako oharra, menuak...) gutxienez euskaraz egongo dira. Hizkuntza bat baino gehiagotan jartzen badira, euskarari lehentasuna emango zaio (hurrenkeran, tamainan...).
- e) Lokalean jartzen diren errotuluak, irudiak, esaldiak... ezin izango dira sexistak izan. Hau da, berdintasun-printzipioa errespetatu beharko dute.
- f) Udalaren egiaztatze ekintzen mende jartzea, baita bertako Kontu- hartzailtza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolerako ekintzen eta baita Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren arauetan aurreikusitako mende ere.
- g) Dirulaguntza ematean kontuan izandako edozein inguruabar objektibo nahiz subjektibo aldatuz gero, udalari jakinaraztea.
- h) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean daudela egiaztatzea.
- i) Laguntza- eskaera ulertu eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta/edo dokumentazio osagarri guztia ematea udalari, Bermeoko Udalaren erregistro orokorrean aurkeztuta edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabilita.

Zehaztutako epeetan, eskatzen diren dokumentuen presentazio ezak, dirulaguntza osorik itzultzea ekarriko du.

10. - DIRULAGUNTZA ITZULTZEA

1.- Deialdi honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badira, zerbitzu kudeatzaileak (Behargintza) ofizioz hasiko du administrazio espediente, eta interesdunari entzun ondoren, justifikatu gabeko funtsak itzultzeko prozedura hastea proposatuko dio dirulaguntza eman zuen organoari, dagozkion berandutze interesen likidazioarekin batera.

Onuradunak ez badu enpresa jarduera edo alokairua lehenengo urteko sei hilabetetan mantentzen, kontzeptu horregatik emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa itzuli beharko du dagozkion berandutze interesen likidazioarekin batera.

Onuradunak ez badu enpresa jarduera edo alokairua urtebetez mantentzen, kontzeptu horregatik emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren erdia itzuli beharko du dagozkion berandutze interesen likidazioarekin batera.

Onuradunak ez badu bigarren urtean enpresa jarduera edo alokairua mantentzen, kontzeptu horregatik emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren %25 itzuli beharko du dagozkion berandutze interesen likidazioarekin batera.

2.- Jasotako zenbatekoa itzultzeko, hala dagokionean, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren II.tituluan eta hura garatzen duen Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren III. Tituluan xedatutakoa bete beharko da.

3.- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 36. artikuluan jasotako emakida- ebazpena baliogabetzeko arrazoiekin batera, jasotako zenbatekoak osorik edo zati batean itzuli beharko dira, baita dirulaguntza ordaintzen den egunetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den arte dagozkion berandutze interesa eskatu ere, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikuluan oro har aurreikusitako kasuetan.

4.-Itzulketa prozedura abiarazteaz gain, dirulaguntza emateko ezarritako betebeharrak ez badira betetzen, onuradunak organo kudeatzaileari jakinarazi ahal izango dio, sarrera erregistroaren bidez, eta jasotako zenbatekoa borondatez itzuli. Horretarako, zerbitzu kudeatzailearekin harremanetan jarri beharko da, egin beharreko izapideak egiteko. Era berean, atzerapen interesak kalkulatu dira, harik eta haiek benetan itzuli arte.

11.- BESTE LAGUNTZA EDO DIRULAGUNTZA BATZUEKIN KONKURRENTZIA

Laguntza- lerro hau bateragarria izango da beste administrazio publiko batzuk abian jar ditzaketen laguntzekin, baina laguntza guztien baturak ezin izango du %100a gainditu.

Dirulaguntza hau bateragarria da merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko dirulaguntzarekin, beti ere errotuluak euskara hutsean jartzen badira.

Dirulaguntza honen onuraduna izateko, ez da bermerik bete behar.

12.- ADMINISTRAZIOAK AURKEZTUTAKO AGIRIAK BERRIKUSTEKO ETA AZTERTZEKO DUEN ESKUBIDEA

Bermeoko Udalak eskubidea du dirulaguntzaren onuradunak zinpeko adierazpenean jasotzen dituen datuak benetakoak direla egiaztatzeko. Horretarako, Bermeoko Udalak prozeduraren edozein unetan dokumentazio osagarria eskatu ahal izango du. Onuradunek ez balute aurkeztuko eskatutako dokumentazioa, prozesutik kanpo geratuko lirateke eta jasotako dirulaguntza bueltatu beharko lukete, edonola ere.

13.- APLIKATUTAKO ARAUTEGIA

Oinarri arautzaileetan xedatutakoaz gain, laguntza hauek Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren eta lege hori garatzen duen erregelamenduaren arabera arautuko dira, eta, osagarri gisa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen eta aplikagarria

izan daitekeen beste edozein arau xedapenen arabera.

14.- IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUA

Datu hauek udalaren informazio sisteman sartuko dira. Tramite honen kudeaketarako baino ez dira erabiliko, eta beste herri-administrazioei/ administrazio publikoei utzi edo jakinarazi ahal izango zaizkie 2016ko apirilaren 27ko Erregelamenduaren, 2016/679 (EB) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenaren arabera. Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, tratamendua mugatzeko eta aurka egiteko eskubidea izango dute Bermeoko Udalaren arreta zerbitzuan.

15.- EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Deialdia arautzen duten oinarri horiek eta dirulaguntza emateko erabakia Dirulaguntzen Oinarri Nazionalen argitaratu beharko dira, sektore publikoa arrazionalizatzeari eta administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuei buruzko irailaren 16ko 15/2014 Legeak aldatu zuen Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 20. artikularekin bat etorritik.